



■ ZINEA

Bi saio, gaur

Iganderako planik ez dutenek bi zine sesio dituzte gaur Biterin. Adin guztietarako *Como entrenar a tu dragon* 2 jarriko dute, 16:30etan. Eta helduen-tzako *Lasa eta Zabala* izango da ikusgai, 19:30etan. ||

■ BAKAILAO ASTEA

Azoka, lehiaketa eta festa, gaur

Gaur bukatuko da Bakailao Astea, eta ekintza ugari antolatu dituzte, errematatze aldera. 10:00etatik 14:00etara azoka berezia jarriko dute Urbieta kalean. Atsegindegin berriz, haurrentzako jokoak eta Bakailao festa izango dira. Azken honen harira antolatu dituzte lehiaketa, pintxoak, sari banaketa... ||

■ ARGAZKI RALIYA

Argazki onenaren bila, gaur

FotoForum Hernanik antolatuta, Argazki Raliya izango da gaur herrian barrena. Izen ematea 09:00etatik 10:00etara da arkupetan; eta handik aurrera bost ordu izango dituzte, argazki onenak ateratzeko. ||

■ EREÑOTZU

Auzoko festa, gaur

Udazken kulturalaren barruan, auzoko festa antolatu dute gaur. 17:00etan hasita, bertako sagardoak dastatu eta gaztain erreak jateko aukera izango da. Produktuen azoka ere jarriko dute. Eta tortilla lehiaketa ere antolatu dute, animatzen diren guztientzat. Guztia auzoko frontoian. ||

■ HERNANI ERABAKI

Bilera, Portun

Auzoetan egingo dituzten erron-ekin hasiko dira bihar. Portuko auzo elkartearen lokalean jarri dute hitzordua, 19:00etan. ||

■ HIRIGINTZA

Sei puntu, aztergai

Hirigintza Batzordea bilduko da bihar, 18:30etan, Udalean. Sei puntu izango dituzte aztergai. ||

■ UDALA ONGINTZA PATRONATUA

Nola egin aurre helduen jokaera aldaketei?

Ikastaroa antolatu du Ongintzak, Lahar elkargoarekin batera. Helburua da aldaketa horiek nondik datozen identifikatzea eta arazoei aurre nola egin ikastea. Izen ematea zabalik dago.

PORTAERA arazoak dituzten helduei nola aurre egin erakutsi nahi du Ongintzak. Lahar elkargoarekin batera, ikastaroa antolatu du. Azaroaren 5, 6 eta 7an izango da ikastaroa, hiru egunetan, 17:00etatik 20:00etara. Maitane Fernandino izango da hizlaria eta teoriiaz gain, aurre egiteko teknika edo moduak erakutsiko ditu.

Jokaerak ulertzea, pausuetako bat

Ikastaroa helduen jokaera aldaketetan oinarrituko da, eta helburua izango da marko bat sortzea, aldaketa horiek ulertzeko. Azaldu dutenez, trastorno horiek arazoak ekarri ditzakete, eta horiei aurre nola egin erakutsiko dute.

Ikastaroan emango dute dementzien inguruko infor-

mazio guztia: definizioa, motak, sintomak, garapena.

Jokaera ezberdinak aztertuko dituzte ondoren: nondik datarren, inguruak duen eragina...

Trastorno hauek ekarri ditzaketen arazoak ere aztergai izango dituzte, hala nola, depresioak, agresibitatea, antsietatea... Hauen eragina aztertzea izango da helburuetako bat: arrazoiak

zeintzuk izan daitezkeen jakin, eta era beran, nola saihestu edo murriztu.

20 plaza, debalde

Ikastaroa debalde antolatu dute, baina 20 plaza besterik ez daude. Beraz, jaso nahi dutenek izena lehenbailehen ematea komeni da. Horretarako: 943 55 78 54 edo San-diusterriko bulegotik pasa. ||

■ OSIÑAGA

Gozatu ederra hartu zuten auzoko lagunekin!

Arratsalde pasa izan zuten atzo txikienek: jokoetan gosetu eta txokolate goxoarekin asetu ziren.

AITZAKIA gutxi behar izaten dute Osinagako bizilagunek elkartu eta ondo pasatzeko. Landa eremua izaki, izaera berezia du auzoak, eta elkartzeko aukera ez dute nahi bezain bestetan izaten. Auzoko festak, irteerak eta urtean zehar antolatzen dituzten beste hainbat ekintza beraz, perfektuak izaten dira juntatu eta elkarrekin une atseginak pasatzeko.

Ume jolasak, atzo

Arriatsuko eskola izaten dute topaleku, eta atzokoan ume eta gaztetxoak izan ziren protagonista. Arratsalderako plana antolatu zien auzo elkar-teak. Lehendabizi, jokoak izan zituzten; dibertsiorako tarte ederra. Eta ondoren, merienda. Azken urteetan tradizioa bihurtu den txokolate jatea egin zuten arratsaldea gozatzeko. ||



Umeen eguna bazen ere, ez hain umeek ere ederki pasa zuten atzoko hitzorduan.

cenor
BALANTXA
ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

HERNANI VISA TXARTELAREKIN %5eko DESKONTUA!

3 hilabetetan ordaintzeko aukera ERREKARGURIK GABE

NAGUSIA, 17
☎ 943 33 40 22

kantoi
MARKOAK

LIKIDAZIOA
HILAREN BUKAERARA ARTE
DESKONTUAK

Urbieta 7, Hernani
943 55 00 37

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
☎ 943 33 15 06

TXANTXILLA
salgai

Garaje itxiak
21 m²

Idemazko
943 42 95 21

LEZ. TXANTXILLA
BERRIA 200 0000

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Odriozola URNIETA Idiazabal, 18 943 334014 • Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA **GAUR** Antzeko eguraldia espero da. Eguzkia izango da nagusi zeruan, eta tenperatura beroa hizpide. Min.16° / Max.30°

BIHAR Tarteka lainoren bat agertu badaiteke ere, eguzkiak agintuko du. Tenperaturan aida-keta gutxi: Min.16° / Max.28° (euskalmet)

ERRUGBIA HERNANI-GERNIKA

Bonus puntua gutxi, Hernanirentzat

Gernikak aukerak aprobetxatu, eta irabazi egin zuen atzo Landaren 14-19. Atsedendititik bueltan hautsi zuten partidua bizkaitarrek.

KOSTATZEN ari zaio Hernaniri denboraldiko aurreneko garai-pena lortzea. Partidu garrantzitsua zuen atzo etxean, eta dena eman bazuen ere, gernikarrak izan ziren nagusi, 14-19. Bonus defentsiboa izan zen Hernanik atzo jasotako sari bakarra.

Aurreneko zatia, berdindua
Eguzkiak gogotik berotzen zuen atzo Landaren eta hori nabaritu zen partidu osoan zehar. Hasi eta berehala aurreratu ziren trikoloreak Genuak gauzatutako zigor kopearekin. 3-0 ziren

aurretik markagailuan. Eta partidua, hara eta hona. Zelaiaren erdigunean izan zen jokoa, eta ez bata eta ez bestek ez zuten asmatu erasoko joko garbirik sortzen. Atsedendian Genuak egindako 3 puntuak soilik ageri ziren markagailuan.

Gernikarren ofizioa nagusi, bigarren zatian
Basurdeak gosez atera ziren bigarren zatian. Hamar minututan bi entsegu egin zituzten, eta 0tik 12ra eramane zuten markagailua. Agerian geratu

zen bizkaitarren ofizioa. Hernaniri kosta egin zitzaion erreakzionatzea. Genuak murriztu zuen aldea, zigor kolpe batekin. Eta bederatzita minutu entsaioa egin zuen Otxotorenak. Genuak ez zuen ordea gauzatu, eta atzetik segi zuten, puntu batera: 11-12.

Azken minutuan, Gernikak aukera aprobetxatu eta hirugarren entsaioa egin zuen. Hernanik, denbora bukatua zela, zigor kolpearekin itxuratu zuen partidua, eta eskuratu zuen bonusa: 14-19. ||



Salvadorren kontra jokatuko du Hernanik, datorren larunbatean.

XAKEA

Hamabi partida jokoan, gaur

Hernaniko Xake Txapelketa martxan da joan den astetik, eta gaur bigarren jardunaldiko hamabi partida jokatuko dira: Pinilla-Erdozio, Oxan-Fernando Esnaola, Martiarena-Joseba Goikoetxea, Altuna-Navascues, Josetxo-Manso, Mikel Zubia-Kofi, Ixidro Esnaola-Fermin, Pablo Arrondo-Dani, Berrotaran-Zigor, Joxe Mari Arriaran-Lujanbio, Aiert Lereki-Jon Korbella, eta Udakiola-Ekaitz. Zumitzan jokatuko dira guztiak, 16:00etan hasita. ||

GOIZ ARGI IGANDE PASIBOEI SU

Jon, Izaki Gardenak taldeko kidea, gaur

Udazkenarekin batera *Igande pasiboei su* ekimena berreskuratuko dute Goiz Argi tabernan. Izaki Gardenak taldeko Jon abeslaria entzuteko aukera izango da gaur, iluntzeko 19:30etatik aurrera. Azaldu dutenez, nahiz eta Jon bakarka etorri, taldeko abesti ezagunenak jo eta abestuko ditu gerturatzen diren guztien gozamenerako. ||

DIPUTAZIOA

Autobus zerbitzu berria ezagutzeko bilera, asteazkenean

Herriz herri egindako bileretan, autobus zerbitzuetan herritarrek zituzten beharrak identifikatu ditu Diputazioak. Ekarpenak jaso, eta zerbitzu berria diseinatu du. 2015etik aurrera izango da martxan, eta eskualdeka azalduko dituzte aldaketa guztiak. Hernanin datorren asteazkenean egingo dute bilera, Biterin, 18:30etan. ||

FUTBOLA

Denboraldiko laugarren garaipena, Hondarribiaren kontra

Sasoi betean dela erakutsi du Hernanik denboraldia hasi denetik. Hondarribiaren kontra neurtu zituen indarrak atzo Zubipen eta 2-0 nagusitu ziren. Bigarren dihoaz sailkapenean, eta bi puntura dute liderra. Beti Gazte izango dute aurkari, datorren astean. ||

IRAGARKI MERKEAK

Lurrak salgai Ereñotzun. Etxe bioklimatiko bat egin nahi? Informazio gehiagorako deitu: 635 756 956

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

www.garraioahobetzen.net

3. FASEA

herritarrekin
martxan en marcha

Gipuzkoa

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

Informazio gehiago:
www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,
Biteri kultur etxean, 18:30ean**